

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Hasteko, gaur egun egunerokotasuneko behar bat bihurtu da erosketak egitea. Hala ere jarduera horretan sor daitezken arazoak askotarikoak izan daitezke. Alde batetik, erositako elikagaiak mantentzeko baliabide falta nabarmena da, adibidez, izozkiak eta barazkiak hondatu egin daitezke supermerkatutik etxerako bidean. Bestalde, erosketak etxeraino eramaterakoan ere arazoak sortu daitezke, pisu asko eta distantzia luzez garraiatu behar denean adibidez.

Ildo beretik, *Eraman* karro autonomoa aukera paregabea da edozeinen erosketak errazteko. Batetik, produktua nagusiki erosketak egiteko orduan arazoak dituztenei zuzendua dago. Zehazki, desgaitasunen bat dutenentzat edota adineko pertsonentzat. Izan ere, tramankulua martxan jartzeko ez da indarrik egin behar eta hura garraiatzeko ezta ere. Gainera, bideko edo etxeko eskailerak igotzeko gai ere bada. Beraz, zailtasunak dituztenek arazorik gabe eraman ahalko dituzte erosketak edozein tokitara.

Ez hori bakarrik, on line egiten diren etxerako eskaeren alternatiba bikaina ere bada. Distantzia luzeak pisu handiarekin egiteko ahalmena duelako. Horren harira, teknologia berrietara egokitzeko, eta beraz, erosketak *on line* egiteko arazoak dituztenei, zailtasunak saihestea da helburu.

Karroa ez dute adineko pertsonak erosi beharrik. Izan ere, hauek arazo ugari izan ditzazkete teknologia berriekin eta askotan ez dira gai ikusten horrelako tramankulu bat erosteko. Hori dela eta, haien senideek zaharren ordeztu produktua eros dezakete. Hori bermatzeko erraztasun asko edukiko dituzte. Hamaika elektronika dendetan eskuragai egongo baita. Besteak beste, MediaMarkt-en.

Ez hori bakarrik, gure produktua hainbat lekuetara zabal daiteke, gure webgune propioari esker (bertan karroak erosi ahalko dira). Hala ere, toki zehatz batzuetan gehigo zentratuko gara. Besteak beste, Benidorm. Leku horietan baitauden gure erosle potentzialak eta horregatik leku horietan karro kopuru gehiago jarriko ditugu salgai. Bestetik, lurralde oro errespetatzen dugu, karroa osatua dagoen materialak ingurunearekiko jasangarriak baitira.

Amaitzeko, gure merkatuaren segmentazioan bi bezero nagusi bereiz ditzazkegu: adinekoak eta haien ordeztu karroa erosi duten zein desgaitasunen bat duten heldu edo gazteak.



Horrez gain, karroa aukera bikaina da distantzia luzeen eta bide aldapatsuen aurrean aurkitzen diren biztanleentzat. Beraz, proiektu berretzaile honen bidez aurrera pasu garrantzitsu eta inklusibo bat lortuko dugu.